

ID O I A
A S T A R L O A

"Tourra erronka izan da niretzat"



MANRESAN EGIN ZITUEN FISIOTERAPIA IKASKETAK ETA HAN ARI DA LANEAN. IAZ TOURRERA LEHENENGOZ JOAN ZEN SABECO TALDEAREKIN MASAJISTA GISA ETA AURTEN JOANE SOMARRIBA ETA BERE TALDEKOEKIN ARITU IZAN DA.

-Manresan kirol arloan ari zara ala bestelako lanak egiten dituzu?

Klinikan kirol arloan gauza gutxi egiten dut. Han batez ere, auto istripuen ondorengo lesioen inguruko lana egiten dut. Bertako futbol taldean, jubenilen mailara arte, prebentzio lana ere egiten dut. Kirol arloan, txirrindulariekin aritzen naiz,

nire anaia Igorrekin apur bat etxean eta neskekin.

-Fisioterapia egitea aukeratu zenuen. Zer dela eta?

Etxean beti egin dugu kirola, bai Igorrek eta baita nik ere. Esku-baloian jokatzen nuen Arraten eta ikasketak horiek aukeratu nituen kirol munduan jarraitzeko.

-Joane Somarribarekin Tourrean. Zelako esperien-

tzia izan da?

Niretzat oso aberasgarria izan da. Iaz Tourrean egon ginenean, helburua taldeak lasterketa bukatzea zen. Aurten ordea, helburua irabaztea zen. Beraz, erronka bat zen niretzako. Guk lan ona egitea oso garrantzitsua da. Txirrindulariek pedalak astindu behar dituzte eta guk beste guztia prest izan behar dugu eta denetik egiten dugu: elikadura zaindu, edan behar dutena prest eduki, kotxea hartu eta bide alternatiboetatik abituallamientoetara txirrindularien aurretik heldu, lasterketa hasi aurretik eta ondoren, masajeak eman...

-Nesken Tourrean prekarietatea dagoela esango zenuke?

Bai. Neskek izugarritzko esfortzua egiten dute eta gauzak erraztu beharrean zaildu egiten dizkiete: leku batetik bestera mugitzeko garraioen atzerapenak jasatzea, euren dieta ez errespetatzea nahiz eta hurrengo egunean etapa gogorrera izan...

-Joanek egindakoa nola laburbilduko zenuke?

Izugarritzko meritua dauka. Oso argi zeukan bere azken Tourra zela eta irabazi behar zuela. Hau guztia ez zen posible izango, Jon Elooriaga abadiñoarra taldea antolatzen ibili ez bazen.

-Nolakoa da Joane?

Niretzat eredu bat da. Argi dauka zer nahi duen eta hori lortzeko gogor egiten du lana. Pertsona ona da, jatorra, umila, esker onekoa eta besteenganako izugarritzko errespetua erakusten du beti. Gure taldean lider bat da eta ez zaio igartzen.


-Txirrindulariak nola errekuperatzen dira egun bate-tik bestera?

Nik beti esaten diet jan behar badute, karrera bukatu eta ondorengo bi orduetan izan behar dela. Urari gatzak botatzen zaizkio gorputzak galdutakoa azkar berreskuratzeko. Gero masajeak eta luzaketak egitea da gomendagarria. Tourra bezalako frogetan ez dago beste ezer egiteko denborarik.

-Zer sentitu zenuen Igorren garaipena ikusi zenuenean? Zein izan zen berak esan zizun lehenengo hitza?

Negar batean hasi nintzen. Egia esan, gauza asko gogoratzen dituzu; batez ere bere ibilbide profesionalean izan diren gazi-gozoek. Manresan nengoen eta gau osoa telefonora inkatuta eman nuen. Berak bere mugikorra amatuta zuenez, familiakoek eta lagunek niri deitzen zidaten. Hurrengo egunean berarekin hitz egin nuenean "Aupa Ido, lortu dugu" esan zidan.

Alazne Aiestaran eta Estibalitz González



optika
itze

✓ ENTZUMENAREN DOHAINEKO KONTROLAK

✓ AUDIFONOETAN AZKENENGO TEKNOLOGIA

Probaleku, 7

Tfnoa. 943 17 46 71



Zubiaurre 20

Pintxoak, otartekoak...
eta hostalarien umore ona